



EUSKARAGAZ EGIZU MATCH

*Dale la vuelta a tu perspectiva sobre el euskera y
cambia tu relación con el idioma*

BILBO,
SORKUNTZA TAILER DIBERTIGARRIAK
TALLERES CREATIVOS Y DIVERTIDOS

16 -25 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT
PARA JÓVENES ENTRE 16 Y 25 AÑOS

APIRILA / ABRIL 19, 26 MAIATZA / MAYO 3, 10, 17
18:00 - 20,00 BBK KUNA



AURKIBIDEA

03

TESTUINGURUA

04

ABIAPUNTUA




05

TALDEA

07

TAILERRAK



08

EMAITZAK

10

PARTAIDEEN BALORAZIOA

14

ONDORIOAK

16

KOMUNIKAZIO INPAKTUAK



01

TESTUINGURUA

Eusko Jaurlaritzako datuen arabera Euskal Autonomia Erkidegoan euskalduntzat jotzen duen biztanleriaren kopurua %36,4 da (Eusko Jaurlaritza, 2016). Ezagutzari dagokionez, azken 25 urteetan bilakaera positiboa izan da. Izan ere, euskararen ezagutza, 16-24 adin tarteko gazteen artean ari da handitzen batez ere.

Gaitasun-datuak onak badira ere, erabilera datuak ordea kezkarriak dira: erabileraren eboluzioa apalagoa izan da azken 25 urteetan eta alderdi sozialez gain, hizkuntzaren erabileran hautu-erabakiak ere badu garrantzi handia.

Halaber, Eusko Ikaskuntzaren ardatz estrategiko bat da gazteen partaidetza eta ahalduntzea bultzatzea. Gazteak gure gizartearen oraina eta etorkizuna dira, eta amesten eta prestatzen ari garen “etorkizun hurbil horretako liderrak” bezala ikusten ditugu.

02

ABIAPUNTUA

Aurrez aurre genuen erronka eta finkatutako helburuak kontuan hartuta (gazteek euskara zergatik ez zuten erabiltzen jakitea eta hizkuntzarekin zuten harremana aldatzea), auzo eta inguruetakoko soziograma egitea erabaki genuen.

Eta Euskaragaz egizu Match ikasketa-komunitatearen publiko-xedea, euskararen ezagutza desberdina eta hizkuntzarekiko jarrera desberdinak dituzten Bilboko gazteok izanik, honako kolektibo hauetara jotzea erabaki genuen:

Otxarkoaga LHZ

Deustuko Unibertsitatea (Open Deusto)

EHU (Unesco Katedra)

CEAR

Nevipen

Gorabide

ZAP (Zurumurruen aurkako plataforma)

Xabier Aierdi (Begirune)

Sanfraneko Gau Eskola

Abusu Ikastola

BAM (Begoñako Andra Mari)

Bakuva

CoopSF34

Norai Elkartea

Peñascal Taldea

EGK (Euskadiko Gazte Kontseilua)

Harrobia LHII

Komunikazio- eta erakartze-kanpaina egiteko, lan-dokumentu bat eta posta elektronikoko eredu bat diseinatu ziren. Lehenengo bidalketa BBK Kunak egin zuen eta, ondoren, Eusko Ikaskuntzako teknikariak harremanetan jarri ziren aipatutako erakunde eta elkarteekin.

Kanpainaren ondoren, Open Deusto (azkenean joan ez zirenak), Bakuva, Otxarkoaga, EGK eta Peñascaleko 16 gaztek izena eman zuten.

Ikaskuntza: euskararekin lotura zuzena duten erakunde, entitate eta elkarteek gure proposamena alde batera utzi zuten, eta ez genuen erantzunik ez eta parte-hartzerik lortu. Ez dakigu zergatik.



03

TALDEA

Azkenean, 16 eta 24 urte bitarteko 14 gaztek osatutako lantalde bat lortu genuen, horietatik 8 neskak eta 6 mutilak. Gainera, jaioterriei dagokienez ere, aniztasun handia zegoen: Bilbo, Portugalete, Ea, Aljeria, Maroko, Venezuela, Nikaragua, Senegal, Kazakhstan eta Ekuatore Ginean. Horietako batzuek euskara bazekiten, eta beste batzuek, berriz, oraindik ez.

Talde honek bere jatorri, kultura eta bizi esperientzien ondorioz zuen aberastasuna gorabehera, desoreka nabari zen euskara hiztunen presentzia urriari dagokionez.

Gazte hauek euskararekin zuten harremana ere askotarikoa zen: batzuek hizkuntzarekiko jakin-mina sentitzen zuten eta ikasi egin nahi zuten, beste batzuek lana aurkitzeko funtsezkoa zela uste zuten, gutxi batzuek euskararekiko nolabaiteko ezinikusia zuten eskola garaiko esperientzia txarren ondorioz, eta beste batzuek sentitzen zuten Bilbon nahi adina ezin erabili izana, solaskiderik aurkitzen ez zutelako.



Ikaskuntza: euskal hiztunaren ikuspegia txertatzeko ahalegina egin behar dugu, eta hobeto islatu behar ditugu jasandako zailtasunak eta euskara mantentzeko eta kontserbatzeko egindako ahaleginak. Ondo legoke, zentzu honetan, adineko euskaldunen testigantzak txertatzea.

04

TAILERRAK

Metodologia:

Aurkeztutako helburuak lortzeko, GizarteLAB gizarte berrikuntzarako metodologia erabili da, Eusko Ikaskuntzak diseinatu eta garatutakoa.

GizarteLABek gazteen gaitasun sozialak garatzen ditu, ikaskuntza kolektiboa sustatuz eta erronkak elkarlanean gaindituz. Proposatzen duena da ahuleziak ebaluatzea, irtenbideak prototipatzea eta esperientziak eskalatzea; bertan, gizarte-berrikuntzako ereduak + prototipo-metodologia arinak + berrikuntzarako gaitasunen garapena eta harreman-ebaluaziorako metodologiak bateratzen dira. Bereziki azpimarratzen du gaitasunak garatzea eta gazteen ikuspegitik ekimen esperimentalak diseinatzea.

Era berean, gazteen arteko giroa konfiantzazkoa eta elkarrekiko errespetuzkoa izatea bilatzen da uneoro.

Egitaraua (ibilbidea)



Zer gertatzen da gaur eukaragaz?
2023.04.26



Goazen ekintzara!
2023.05.10

Aurreiritziak eta estereotipoak, pikutara!
2023.04.19



Eta, zer gertatuko da etorkizunean?
2023.05.03



Emaitzak eta... FESTA!
2023.05.17



Ikaskuntza: Parte-hartzaileek gehien estimatu dutena sortutako giroa, dinamika parte-hartzaileak eta kontakizun komun baten eraikuntza izan dira.

05

EMAITZAK

Tailerretan landutakoa zazpi puntutan laburbildu daiteke.



Euskara: Parte hartzaileek euskara erlazionatzeko erabiltzen duten hitz hodeia. Nabarmentzekoa da gazteek aipatutako osagai emozional garrantzitsua, modu positiboan zein negatiboan.



Diagnosia: [Euskararen inguruko aukerak, oztopoak eta konponbideak gazteen egunerokoa. Hizkuntza ikasteko (zailtzat jotzen da) edo ohiko moduan erabiltzeko zailtasunak izan arren, azpimarratu behar da ez zela inoiz zalantzan jarri ez euskararen balioa, ez euskara bizirik mantentzeko beharra (ikasi eta erabili).




[etorkizuneko kontakizun partekatua: etorkizunak eraikitzeko teknika bat erabiliz, kontakizun komunitario batean oinarrituta. Gazteek bost urterako etorkizun desiragarria eta euskararekin izango duten harremana imajinatu zuten.



Nerea Arostegi, kazetari eta idazle getxotarraren aurkezpena: azkeneko saioan, festa hasi aurretik eta sorpresa moduan, Nereak bere azken liburuaren inguruan ari zitzaigun ([Euskaratú: sabes más euskera del que piensas])


05

EMAITZAK



Lehen zitak:

Euskarazko APP prototipoa, non gazteek beste gazte batzuekin ligatzen duten. euskara hutsean.



Nixel:

Euskara berehala ikasteko eta edozeinekin hizkuntza horretan komunikatzeko balioko duen txip prototipoa.




Izarrak:

Gazteentzako euskarazko musika jaialdiaren prototipoa, askotarikoa eta irekia.


06

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA

Antolaketa




Gaiaren interesa




06

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA

Aurkezpenak




Dinamikak




06

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA

Asebetetze maila



Gehiago nahi?



06

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Dena / Todo ha estado bien

Giroa

Edariak / Bebidas

Me habéis cambiado el pensamiento que tenía sobre el euskera

Todo pero, en especial, los momentos más cooperativos como

cuando hicimos una historia entre todos

Metodologia asko gustatu zait

Zer da gutxien gustatu zaizuna?

Subir las escaleras

Cuando había que trabajar

Nada

07

ONDORIOAK



Euskera (idiomas) = emozioak / emociones +/-

Políticas hechas por los adultos (no culpabilizar a jóvenes)

Reto en educación: hacer más atractivo el aprendizaje del euskera

Gazte guztiak dute euskaraz bizitzeko eskubidea (aurreiritziak)

El futuro del euskera está en manos de **TODAS** las jóvenes

Eremu informala, landu beharrekoa (sustapena)

El ocio, el gran reto del euskera

EL FUTURO DEL EUSKERA está en vuestras manos...

ZAINDU DEZAGUN!

- Gazteei buruz galdetu gabe hitz egiteko joera orokorra dago. Balio-gabeziak leporatzea eta helduok eragin ditugun zirkunstantzien erantzule egitea. Eta, nola ez, erakunde helduek egindako gazteria-politikak, euskara-politikak, hezkuntza-politikak... daude, helduen ezagutza sakona biltzen dituztenak, baina gazteei benetan sentitzen, nahi eta behar dutena galdetu gabe eginak direnak.
- EAeko haur eta gazteen artean euskararen ezagutza handia izatea, zalantzarik gabe, euskal hezkuntza-sistemaren arrakasta handia da. D hizkuntza-ereduaren ezarpen zabalari esker, gure gazte eta nerabe gehienek euskara dakite. Baina zerbait huts egin du sisteman, gazte askok lotzen baitute euskara ikastea esperientzia txar batekin (traumatikoa ez denean). Izan ere, eskolaren eremuan hizkuntzaren bidez maiz gertatzen den segregazioa ere aipatzen da maiz.
- Euskararen erabilerari buruzko azken ikerketen arabera, gazteek ez dute euskararen aurrean diskurtso argi eta zehatzik erakusten. Familiak euskaldunak dituzten gazteen kasuan, erreferentzia gehiago izan ditzakete: baina, gehienentzat, hezkuntza-eremua da euskararen inguruan ideiak, balioak edo erreferentziak jasotzeko bide bakarra.

07

ONDORIOAK

- Adiskideek, harreman informalek, mundu digitalak eta aisialdiak pisu handia dute gazteen nortasuna eraikitzeko orduan. Horregatik, ezinbestekoa da gazteak seguru, eroso eta gustura sentituko diren guneetara hurbiltzea hizkuntza.
- Argi dago, era berean, gazteen artean euskararen helburu funtzionala nagusitzen dela, Euskadin lan egin ahal izateko beharrezkoa den aldetik: horrek, nolabait, nortasunaren eta kulturaren alderdia kaltetzen du.
- Beharrezkoa da erreferentzia euskaldunak sortzea gazteen mundu errealean, talde politizatu, feminista eta ekologistetatik haratago, baina hauek baztertu gabe. Euskarazko kultura eta ikus-entzunezkoen sorkuntza sustatzea, bai kantitatean bai kalitatean, urrats ona litzateke.
- Ezinbestekoa da, halaber, komunikazio-funtzioan sakontzen duten eta oso motibagarriak diren euskara irakasteko moduetan berrikuntza sakonak egitea.
- Azkenik, adin horretako gazte talde batekin lan egiten denean, baliteke hizkuntzaren testuinguru historikoa eta bilakaera bistatik galtzea. Euskararen balio eta ezaugarri bereziak eta historian zehar izan duen ibilbidea azpimarratu beharko lirateke, egungo sistemaren lorpenak eta ahuleziak kontuan hartzeko.
- Baliteke tailer hauekin gazte talde honen euskararen inguruko jarreretan muturreko aldaketarik lortu ez izana. Baina bai antzeman ditugula xehetasun txikiak, perspektiba aldaketa arinak eta, batez ere, euskara jarduera dibertigarri batekin lotzeak, non gazteek entzunak, seguruak eta epaitu gabeak sentitu diren. Bada zerbait, gure ustetan.

08

KOMUNIKAZIO INPAKTUAK

2023.04.15 Euskararen Etxea

2023.04.18 Europapress

2023.04.19 El Diario Vasco

2023.04.22 El Correo

2023.04.25 El Correo /Xabier Aierdi)

2023.05.13 El Correo (Maialen Iñarra)

2023.05.17 Deia

2023.05.17 La Vanguardia

Eusko Ikaskuntzaren webgunea

Eusko Ikaskuntzaren sare sozialetan: [Twitter](#), [Facebook](#), [Instagram](#)

Eskerrik asko!!!



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

kuna
bbk e